



Hondarribiko festak ♦ Musikaz beteriko gaua izango dute gaur herrira hurbiltzen direnek

# Azken egunei eutsi

Asteburuari aurre eginez eta indarrak berreskuratuz, hurrengo egunotarako prestatutako ekitaldietan parte hartzerik izango dute hondarribiarrek. Pare bat egun gelditzen dira oraindik jaez gozatzeko, eta ahalik eta hobekien pasatuko dituzte zalntzarik gabe.

Gaurko makina bat ekitaldi antolatu dira. Goizeko 08:30etan Hondarribiko Musika Eskolako txistulariek Segurako Alborada joko dute, eta hondarribiar guztiek edo gehientsuenek behintzat ongi etorria emango diote gaurko egunari. 10:30ak aldera, 1638ko hiri setioan hildakoen aldeko Meza Nagusia ospatuko da Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren elizan. Bertan, Herriko konpainiak beren bandera, ofizial eta kantinerekin Hiriko Bandera agurtu eta Artilleriarekin batera deskargak egingo ditu. Meza bukaeran Parrokiako abesbatzak abestuko du.

## \* Sabela bete-beterik eta giro paregabea

Erraldoi eta buruhandien txanda izango da gero. Musika Eskolako trikitilariekin batera kalejira egingo da eta herrian jai giroa nagusituko da. Ondoren, 12:30ak iritsita Benta jendez betetzen hasiko da gaurko sokamuturrak emango duenaz gozatzeko.

Konturatu gabe helduko da bazkaltzeko ordua ere. Jai giroan eta, nola ez, lagun artean sabela ondo

betetzeko aukera izango da eguerdiko 14:30etan. Batetik, adinekoen bazkaria dago Jostaldi kiroldegian eta giroa berotzeko Klink fanfarria izango da. Bestetik, baina oraingoan Bentan, Herri Bazkaria dago antolatuta eta ezin falta bertsolari eta trikitilariak. Osagai hauek guztiak ikusita ezin uka giro polita sortuko dela bazkalorduan.


Ondoren, eta oraindik digestioa behar bezala egina izan gabe, hondarribiar asko izango dira San Telmoko Tiro Zelaian bilduko direnak, arratsaldeko 15:30tan Plater Tiroketa Soziala ospatuko baita bertan.

17:00etan, berriz, haurrentzako jolasak izango dira Arma plazan. Pirata untziez, antzerkiaz, jokoez, magiaz eta musikaz bapo gozatzeko parada izango dute etxeko gaztetxoek.

Gau partean, berriz, musika izango da nagusi, Santiago kalean Anje Duhaldek kontzertua eskainiko du gaueko 22:00etan. Ondoren, 23:30etan, bi aukera nagusituko dira: batetik, Kasino Zaharreko lorategian Los Pasai taldearekin erromeria izango da. Bestetik, Bentan, Gozategi taldearen kontzertua dago entzungai.

Aukerak, beraz, ugari dira, eta gogoa izanez gero parranda egiteko parada ezin hobea, nahiz eta askok bihar lanera joan beharra izango duten.

ANDER GILLENEA



AITZIBER BASAURI

**Egunkaria k**  
JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE!!

Hostal **H\*** Ostatua  
Txoko Goxoa

Murrua, 22 Tel.: (943) 64 46 58 189 Posta Kutxa 20280 HONDARRABIA

**LAPITZ**  
JANARIAK

San Pedro kalea, 28 - ☎ 64 13 69 - HONDARRIBIA

**OSTATU JATETXEA**  
PUNTAN

Bidasoa kalea, 10  
Tf.: 64 46 14 HONDARRIBIA

**LA HERMANDAD**

JATETXEA

Zuloaga Kalea, 2/g.  
Telf. 64 27 38  
HONDARRIBIA

**ILARGI YOGA**  
**ELKARTEA**



ORDUTEGIA: Astarte eta ostegunetan  
arratsaldeko 6 etan  
LEKUA: Almirante Alonso, 5 kalea  
ARGIBIDEAK: 64 26 62 Tel. FERNANDO



**ZERIA** JATETXEA

San Pedro kalea, 23 - ☎ 64 27 80 - HONDARRIBIA